

Modara egokitua

Amatxi josi zaleak, *prêt à porter* eskura errazak, eta bi fenomeno hauen arteko *tempo* aldea, *idem* egina bata (snif), bestea INEM eragilea, denbora bera, banderez gain izan daitezkeen ikurren zerrenda, ekologia eta transgenikoen auzia, zenbat garen, kontainerren burujabetza, herriko alarde®-tik *Disney World* derako baserritarkeria mundiala, Espainiako ligarekiko euskal atxikimendu ez koherenteegia. Gai horiek guztiak, eta akaso nik bereizi ez ditudan beste hainbeste, ukitu dituzu, Basterretxea, eta oraindik galdetzen didazu goruak ardatza galdu ote duen? Hala ere, nik ez dakit zer haritarik tira, batez ere, Apalategiren ttakunaren oihartzun dagoeneko urrunari zor –ezen ez gor– sentitu arren, behin bide horri ez lotzea erabaki dudalarik, identitateen balizko –eta (barkatu, pasatzen ari naiz) bolizko– naturaltasunaren eztabaidan ez kiribiltzearen. Ikuskizunak aitzina behar du.

Zertaz idatziko dudan, Urri zertaz erantzunaraziko diodan, oraindik buruan dabilkit. Herriko apaizak behin esan zigunez, aukeren ugariak, kontrakoa balirudike ere, ez omen gaitu libreago egiten. Gizakiak egiatan *baututuko* luke bai ala ez erantzun beharrekoetan. Nik inoiz ez nion susmo onegirik hartu makinan aukeramen sistema binario honi. Apaiz bati –apaiz mota asko dago– bizitza oso erraztuko zaio dena ongian eta gaizkian erdibitzean, baliteke, baina niri ez dit balio. Askotarikotasunak dakarren zorabio edo soraio tentazioari buru eginez, erabaki dut gaur jantzieta modaz aritzea.

Jantzia ere bada gure ikurretako bat, baita amonek josten ez dakiten edo zuzenean josi nahi ez duten honetan ere. *Homo symbolicus* ezin du ekindin, Midasen zorigaitz eta zorion berarekin, ukitzen duen orok esanahia har dezala. Horregatik, eta gauzak argitze aldera, nik beti aldarrikatu izan dut,



Angel Erra

Apalategi

Basterretxea

lagunak nazkatzeraino, baina inoiz ez foro publiko batean, norbaitek eskuak sartu beharko zituela euskal estetikari buruzko tratatu batean, baina ez Oteizaren hutsalkeria metafisikoen ildotik, baizik eta, janzkeran, orrazkeran eta kontu ttipi horietan darabiltzagun joera nagusiak, eta beraien jatorri eta ondorioak, bildumatzeko asmoz.

“Koadrodun alkandorak, mallak, forroak, mendiko botak, maoizko galtzak, bizar eta txima luzeek identifikatzen gintuzten euskal nortasunaren eredutzat” (kakotxak nireak dira), hala dio Asier Serranok bere poema liburu berrian. Zergatik? Cristóbal Balenciaga eta Paco Rabanneren herrian esanahi nazionala eman zaio zabar ibiltzeari? *Gora Euskadi Itsusia* nork egin zuen aldarri?

Nik zantzu batzuk baditut. Hemen kontsigna bat da, artifizial gabe, natural agertzea. Eta Adan & Eba moda sortzaileengandik hona ez dagoenez natural ibiltzerik, agindua modu ezberdinetara interpretatzen da: duela hogeituroteko estilora jantzita, baserri lanerako arropa estiloa herri edo hirirako ere erabilita, kirola ere sanoa denez kiroleko jantzia okasio guztietara egokituta, emakumeak gizonarekiko diferentziak ahalik eta gehien berdinduta. Azken honek arreta bereizia eskatuko luke. Roberto Arltek gerra aurretik Euskal Herrian eginiko bisitaldian esaten du hemengo neskatilek mutikoak diruditela, orduko kontrol sozial-erlijiosoa ez litzuke eme portatzen utziko.

Orokortzen ari naiz: baditugu Saizarbitoriaren mokasin granateak, *Skunkfunk* eta are Zara ere, eta seguruenik gehien goa da hori. Ni neu, nola edo hala, dotoretik baino gehiago daukadan arren baldarretik, moda maite uste dut. Neure burua engainatzen dut kamisa bat erosi ondoren independente sentituz. Zu, Ur, zerk sentiarazten zaitu burujabea? ■

Nik beti aldarrikatu izan dut, lagunak nazkatzeraino, norbaitek eskuak sartu beharko zituela euskal estetikari buruzko tratatu batean, baina ez Oteizaren hutsalkeria metafisikoen ildotik, baizik eta janzkeran, orrazkeran eta kontu ttipi horietan darabiltzagun joera nagusiak, eta beraien jatorri eta ondorioak, bildumatzeko asmoz